



**AIARAKO UDALAK 2022ko AZAROAREN 15ean EGINIKO PREMIAZKO EZOHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA.**

**PRESIDENTEA**

Gentza Alamillo Udaeta jauna

**ZINEGOTZIAK**

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

Montse Angulo Solloa andrea

José Antonio Bartolomé Pesquera  
jauna

Unai Capo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendíbil andrea

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita biko azaroaren hamabostean, hamarrak eta hamabost direnean, Udalbatza Osoa bildu da premiazko ezohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

**EZ DIRA BERTARATU**

Susana Martín Benavides andrea

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Koldo Mendioroz golda jauna

**IDAZKARIA**

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongiatorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, premiazko ezohiko Osoko Bilkura honen premia.**

Hasteko, Udalbatzari jakinarazi zaio Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 79. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Alkateak edo Presidenteak gaiaren edo gaien premia dela-eta ezin duenean ezohiko osoko bilkura deitu apirilaren 2ko 7/1985 Legeak exijitutako gutxieneko bi egun balioduneko aurrerapenarekin, premiazko ezohiko osoko bilkuretako gai-zerrendako lehenengo puntua osoko bilkura premiazkozat jotzeko izan behar da.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du premia Ikastolaren proiektuaren erredakzio berria eskatatu beharraren ondorioa dela, eraikuntza-eskakizunak aldatu direlako. Proiektua duela gutxi heldu da, eta azaroaren 17a baino lehen onetsi behar da, egun



horretan amaitzen delako Udalaguntzaren dirulagutnza eskatzeko epea. Horretaz gain, indarrean dagoen garbiketa-kontratua aldatu behar da, kontsultategiaren lokala garbitzeko xedea kendu ahal izateko, eta lokal hori kanpo utzita agiri berriak onesteko.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta bertaratuek ohiko bozketaren bidez (Udalbatza osatzen duten hamaika udalkideetatik zortzi) aho batez adostu dute bilkuraren premia onestea eta ondoren gai-zerrendan jasotako gaiei ekitea.

## **2.- Osoko bilkuraren proposamena, bidezkoa bada, Etxaurren Ikastolako beroa sortzeko eta EUB sistemak ordeztzeko proiektua onesteko.**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikulua onetsi egiten duela Tokiko Erakundearen Antolakunde, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren arabera, alkate edo udalburuek, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai-zerrendan aurretiaz dagokion Informazio Batzordean jakinarazi ez diren gaiak sartu ditzaketela. Halere, egoera horretan ezingo da horien inguruko erabakirik hartu Udalbatzak ez badu berresten horiek eguneko gai-zerrendan sartzea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta ez da inolako iruzkinik egin, beraz, gaia bozkatu da, eta aho batez onetsi da puntua bilkura honetako gai-zerrendan sartzeko berrestea.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak hartu du hitza azaltzeko obra horretarako 2021. urtean dirulaguntza eskatu zitzaioela Udalaguntzari, baina uko egin zaiola, denbora pixka bat aurrezteko eta beste dirulaguntza batzuk eskatu ahal izateko; izan ere, aldaketa egin ondoren aurrekontua asko garestitu da, eta beraz, berriz Udalaguntza 2022ri dirulaguntza eskatuko zaio.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitzaobra horretarako Foru Planaren dirulaguntzari buruz galdetzeko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du ez dagoela arazorik. Luzapenak eskatuko dira.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak hartu du hitzagaldetzeko ea obra udan egingo den, haurrik ez dagoenean.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du ez dakiela noiz ebatziko diren laguntzak. Obren iraupena lau edo bost hilabetekoa izango da, beraz, beste neurri batzuk hartu beharko dira, hala nola ikasgeletan eragina duena arratsalde egitea, beharrezkoa bada haurrak mugitzea, edo beharrezkoa dena. Alkate jaunak azaldu du obran ur bero sanitarioa, berogailua eta bentilazioa berrituko dela, eta gela bakoitzean aire-neurgailu bat egongo da. Arlo horren exijentzia guztiengatik, eta eraikuntzako prezioen igoeraren ondorioz, obraren prezioa asko igo da. Kontsultatu da eta eraikinaren aerotermia ez da oso ona.

Ez da gaiaren gaineko iruzkin gehiagorik egin, beraz, gaia bozkatu da, eta bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 8k) aho batez onetsi dute.



Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** 2021eko urtarrilaren 21eko osoko bilkuran Etxaurren Ikastolako (Zuhatza, 2. poligonoa, 592. partzela) Berogailua, Etxeko Ur Beroa eta Aireztatze-sistema Hobetzeko Proiektua onetsi zela, 2017ko abendukoa, M<sup>a</sup> Rosario Perez Martínek idatzitakoa, eta 2020ko azaroaren 30eko aurrekontu eguneratua, 573.612,99 €-ko (BEZa barne) kontratarako exekuzio-zenbatekoa duena.

**IKUSI DA.-** Denbora pasa ahala eta eraikuntza-eskakizunetako aldaketak eta eraikuntzako prezioen igoeraren ondorioz, 2022ko maiatzaren 11n VENCLISER SA enpresari “Etxaurren Ikastolako beroa sortzeko eta EUB sistemak ordezteko proiektua” egitea adjudikatu zitzaioela.

**IKUSI DA.-** 2022ko urriko 28an (sarrera-erregistro zk.: 4264) udal-bulegoetan Etxaurren Ikastolako beroa sortzeko eta EUB sistemak ordezteko proiektua aurkeztu zela, Iñaki Ugartondo Martínez de Antoñana ingeniari tekniko industrialak idatzia eta 2022ko urriaren 21ean sinatua. Proiektuaren zenbatekoa 813.850,54 €-koa da, gehi % 21eko BEZari dagozkion 170.908,61 €. Guztira, proiektua 984.759,15 €-koa da.

Udalbatzak, aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik bertaratu diren 8k),  
**ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.-** Onestea Etxaurren Ikastolako beroa sortzeko eta EUB sistemak ordezteko proiektua, Iñaki Ugartondo Martínez de Antoñana ingeniari tekniko industrialak idatzia eta 2022ko urriaren 21ean sinatua. Proiektuaren zenbatekoa 813.850,54 €-koa da, gehi % 21eko BEZari dagozkion 170.908,61 €. Guztira, proiektua 984.759,15 €-koa da.

**3.- Osoko bilkuraren proposamena, bidezkoa bada, Aiarako udalerriko eraikuntza publikoen garbiketa-sistemaren kontratua aldatzeko, kontratuaren xedetik Luiaondoko osasun-kontsultategia kentzeagatik.**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikulua onetsi egiten duela Tokiko Erakundeen Antolakunde, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren arabera, alkate edo udalburuek, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai-zerrendan aurretiaz dagokion Informazio Batzordean jakinarazi ez diren gaiak sartu ditzaketela. Halere, egoera horretan ezingo da horien inguruko erabakirik hartu Udalbatzak ez badu berresten horiek eguneko gai-zerrendan sartzea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta ez da inolako iruzkinik egin, beraz, gaia bozkatu da, eta aho batez onetsi da puntua bilkura honetako gai-zerrendan sartzeko berrestea.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 8k) aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,



**GERTAERA.-** 2016ko uztailaren 15eko 267/16 Alkatetza-dekretuaren bidez, bilkuraren eskuduntzaz, prozedura irekiaren bidez COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresari Ayala-Aiarako udalerriko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuaren kontratua adjudikatu zitzaiola, urtean 120.453,90 eurokoa (BEZa barne); kontratuak lau urteko egikaritze-epea du, eta beste bi urtez luzatu daiteke alde bien adostasuna badago.

**AINTZAT HARTU DA.-** 2019ko otsailaren 21eko osoko bilkuran baimena eman zen COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresaren AIARAKO UDALERRIAN ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN kontratua ISS FACILITY SERVICES SA enpresaren alde lagatzeko.

**AINTZAT HARTU DA.-** Egun horretatik aurrera ISS FACILITY SERVICES SA enpresak zerbitzu hori adjudikatutako baldintza beretan eman duela, 2020. eta 2021. urteetan zehar COVID-19aren pandemiaren ondorioz sortutako alerta sanitarioa zela-eta onetsi behar izan ziren aldaketekin.

**AINTZAT HARTU DA.-** Zerbitzu-kontratu horretan sartutako garbitu beharreko eraikuntza bat Luiaondoko osasun-kontsultategia dela, eta, 2017ko irailaren 21ko osoko bilkuraren akordioaren bidez, behin betiko onetsi zen Eusko Jaurlaritzari Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinaren bat zenbakigarren finka lagatzea, beheko solairuan dagoen Osakidetza osasun-zentrorako lokalari dagokiona. 2022ko martxoaren 8ko Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onartutako erabakiaren bidez Aiarako Udalaren aldetik egindako lagapena onartu zela, aipatutako osasun-zentroaren titulartasuna emateko, eta erabakia Ekonomia eta Ogasun Sailaren sailburuaren 2022ko martxoaren 23ko erabakiaren bidez berretsi zen. Lagapena eskritura publikoaren bidez aurkeztu zen 2022ko ekainaren 16an.

Lagapen horrekin bat etorritik, 2022ko abenduaren batetik aurrera Eusko Jaurlaritzak izango du eraikuntza horren garbiketaren ardura.

**AINTZAT HARTU DA.-** Luiaondoko osasun-kontsultategiaren eraikuntzari dagokion hileroko fakturazioa 1.240,12 €-koa dela (BEZa barne).

**IKUSI DIRA.-** Kontratua arautzen duen Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean oinarrituz Udaltzaren Osoko Bilkurari emandako eskumenak.

Udalbatzak, aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik bertaratu diren 8k),  
**ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** 2016ko uztailaren 15ean COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresari adjudikatutako eta 2019ko otsailaren 21ean osoko bilkurako erabakiaren bidez ISS FACILITY SERVICES SAri emandako Ayala-Aiarako udalerriko eraikuntza publikoak garbitzeko zerbitzuaren kontratua aldatzea, kontratuaren xedea murrizteagatik, garbitu beharreko eraikinetatik Luiaondoko osasun-kontsultategia kendu behar delako.



# Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

**Bigarrena.**- Aipatutako erreferentziazko kontratuaren adjudikazioaren prezioak mantenduko dira, beraz, aldaketaren ondorioz 1.240 euroko (BEZa barne) jaitsiera egongo da xedearen aldaketak hileroko prezioan.

**Hirugarrena.**- Kontratuaren aldaketaren indarraldia edo iraupena 2022ko abenduaren leian hasiko da, eta kontratu berria adjudikatu arte iraungo du, eta kontratu nagusiari erantsi beharreko eranskina sinatzearen bidez gauzatu da.

**Laugarrena.**- Alkate-udalburuari aldaketa gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko ahalmena ematea.

**Bosgarrena.**- Erabakia ISS FACILITY SERVICES SA enpresari jakinaraztea, ohartaraziz berraztertze-errekurtsua aurkez dezakeela Udalaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren aurrean.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hamarrak eta hamabost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezten, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita biko azaroaren hamabostean.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA,

Stua.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA,

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.